

# Prosodiaren garrantzia kortesia erlazioetan

Aintzane Etxebarria, Iñaki Gaminde, Urtza Garay, Asier Romero

Euskal Herriko Unibertsitatea  
inaki.gaminde@gmail.com

## Abstract

This article represents a first approach to the analysis of courteous relationships in Basque, and following a pragmalinguistic line of study, the analysis limits itself to the area of prosody. Although little research has been carried out in this field, those are concepts that should be treated in the teaching and in the learning of a second language because of their relevance in the description of all language matters in order to avoid mistakes when teaching and learning a language. The paper reveals the importance of prosody in courteous relationships and emphasizes it through the analysis of a corpus of sentences using the word *mesedez* 'please' produced by speakers of Bizkaian varieties with different linguistic backgrounds, accent patterns and intonation patterns. The sentences that constitute the corpus reflect the difference between a command and an invitation, on the one hand, and show two power relationships, on the other. By means of phonological and phonetic analysis, the way in which those relationships manifest themselves are studied, and the prosodic markers in the sentences are identified.

## Laburpena

Artikulu honetan euskaraz egiten diren kortesia erlazioekiko azterketekin lehenbiziko hurbilpena egin nahi izan dugu, eta pragmalinguistikaren bidetik prosodiaren esparrura mugatu dugu gure analisia; izan ere, nahiz eta lan gutxi egin horren inguruan, bigarren hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza esparruan burutu beharrekoak dira, garrantzitsua baita hizkuntzaren alde guztietako deskribapena irakasteko eta ikasteko orduan hutsunerik egon ez dadin. Kortesia erlazioetan prosodiak daukan garrantziaz jardungo dugu eta bide batez garrantzi hori agirian jarri nahi izan dugu. Horretarako, "mesedez" hitzaren bidez egineko esaldi corpus bat jaso eta aztertu da, Bizkaiko barietateetan jatorri linguistikoa, azentu eredu eta intonazio eredu desberdinak dauzkaten lekukoekin. Corpuseko esaldiek batetik agintearen eta gonbitaren arteko aldea eta, bestetik, botere erlazio bi islatzen dituzte. Erlazio hauen gauzapena zertan datzan ikertzeko azterketa fonologikoa eta fonetikoa burutu dira. Azterketa hauen bitartez esaldien adierazle prosodikoak ondorioztatu dira.

**Keywords:** prosody, courtesy, pragmatics, phonology, phonetics

**Gako hitzak:** prosodia, kortesia, pragmatika, fonologia, fonetika

## 1. Sarrera

Egungo hiztun orok izan beharreko komunikazio gaitasuna ez da kode linguistikoa ezagutza soilik kontuan hartuta definitzen; alegia, gaitasun orokor hori definitzerako orduan ikuspegi bateratu orokorrik ez badago ere, teoriko gehienak bat datoz bestelako azpi-gaitasun batzuk osatzen duten gaitasun nagusia dela adieraztean. Hymesek ireki zuen bideari jarraiki, hizkuntza-gaitasuna eta beronen erabilera-arauak uztartu baitzituen, Europako Erreferentzi Marko Bateratuak komunikazio-gaitasunaren barnean hizkuntza gaitasunaz gain, gaitasun soziolinguistikoa eta pragmatikoa sartzen ditu. Gaitasun pragmatikoak testuaren barneko egitura eta lortu beharreko funtzioan arreta jartzen du; gaitasun soziolinguistikoa, bestetik, ingurukoekiko harremanetan hiztunak izan beharreko ezagutzan oinarritzen da, besteak beste, herri-hizkera, euskalkia edota erregistroa kontuan hartuko ditu. (Garay, U.; Etxebarria, A., 2010).

Beraz, hiztunak ikasten edota hitz egiten ari den hizkuntzaren arau gramatikalak nahiz lexikoa ezagutu behar ditu, baina ez hori bakarrik, pragmatikak ere baduelako garrantzia, baina zer neurritan?

Blum-Kulkak (1996) pragmatika hurrengo hitz hauekin definitzen du: "El estudio de la lengua en su contexto" Testuinguru horretan soziopragmatika eta pragmalinguistika bereizten ditu. Soziopragmatikak hiztunaren kultura eta murriztapen sozialekin lotura du; esaterako hizkera zuzenarekin zerikusia du. Blum-Kulkak kontzeptu honen azalpena egiteko Beebe eta Takahashik 1989an japonieraren diskurtsoa ikertzean erabili zuten hurrengo adibide hau jartzen digu: Japoniako emakume batek diru-zorroa lapurtu zioten Ameriketako Estatu Batuetako emakume bati "Kontuz! Lapurtu egin dizute!" esan beharrean, "Ba al duzu poltsarik?" galdetu zion. Ikusten denez, Japoniako emakumeak ondoko emakumeari, duen kulturaren eraginez, modu ez-zuzenean esaten dio poltsa lapurtu diotela.

Bestalde, pragmalinguistikak hurrengo maila hauetan arreta jartzen duela adierazten du: fonetika, fonologia, sintaxia, lexikoa eta semantika. Ikusten denez, esanahiaren eta eduki linguistikoen arteko erlazioan arreta jartzen du:

"La pragmalingüística especifica las formas en las que los significados pragmáticos son indicados por medios lingüísticos."

Bere ustez, maila horiek ikertu behar dira adierazpen pragmatikoak behar bezala egiteko, oraindik ez baitugu egin irakasten ditugun hizkuntzen deskribapen sistematikoa, pragmatikoa eta zehatza.

Beraz, kortesia adierazpena ezberdin egiteak ikamika ugari sor ditzake hiztunen artean, baina ikertu da euskaraz kortesia nola egiten den pragmalinguistikaren ikuspegitik? Alegia, ba al dakigu euskalki ezberdinetan kortesia modu berean egiten den ala ez?

Halaber, artikulua honetan euskaraz egiten diren kortesia erlazioekiko azterketekin lehenbiziko hurbilpena egin nahi izan dugu, eta pragmalinguistikaren bidetik prosodiaren esparrura mugatu dugu gure analisia; izan ere, aurreko lerroetan adierazi den bezala, nahiz eta lan gutxi egin horren inguruan, bigarren hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza esparruan burutu beharrekoak dira, garrantzitsua baita hizkuntzaren alde guztietako deskribapena irakasteko eta ikasteko orduan hutsunerik egon ez dadin. Seanek 1992an ideia honen inguruan esan zuen, oso garrantzitsuak direla pragmatika, prosodia eta hitzen bidez egiten ez den komunikazioa aurrez aurreko elkarreraginean, eta distantzia kulturala eta linguistikoa aipatzen ditu arau soziopragmatikoak barneratzeko orduan:

“It is posited that learners whose L1 and native culture are more similar to the target language and culture are more likely to experience subtle pragmalinguistic difficulties in the target language (TL), while learners whose L1 and native cultures differ greatly from the target language and culture are more likely to experience difficulties in mastering TL sociopragmatic norms.”

Alabaina, irakatsi al diezaiokegu euskara bigarren hizkuntza gisa ikasten ari den norbaiti kortesia bezalako egiturak ondo egiten?

Kasperrek 1997an gaitasunak ez direla irakasten adierazi zuen, bai ordea, hobetu, jabetu, erabili edo galdu. Hortaz, beharrezkoak diren aukerak eskainiz gero, gaitasuna hobetu liteke. Ideia honetatik abiatuta, Landonek 2001ean, behaketan oinarritutako gaitasunaren garapen-prozesua proposatu zuen:

“Consiste en la observación esmerada de un fenómeno (lingüístico, funcional o, como en nuestro caso, pragmático y sociolingüístico) para que empiece a existir y a desarrollarse en la competencia del aprendiz.”

Geuk ere bide horri hasiera emango diogu lan xume honen bidez eta kortesia nola adierazten duten zenbait hiztunek behatu eta deskribatuko dugu, beti ere, euskararen ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan gaitasun pragmatikoa garatzeko bidean ari direnen oinarri eta lagungarri izan dadin.

Horrenbestez, prosodiaz eta pragmatikaz jardungo dugu. Prosodia guztiz lotuta agertzen zaigu gaitasun gramatikalarekin, fonologiari dagokionez, baina baita, era berean, gaitasun pragmatikoarekin ere; are gehiago, esan dezakegu ezen, ahozkoan ezin bereiz daitekeela gaitasun diskurtsibotik eta soziokulturaletik ere.

Prosodia definitzea konplexua izaten da baina, beronen funtzioak ulertzea errazago egin dakigukeenez gero, gomutara ekarriko ditugu Fujisakik (2004) hizketaren tasun segmental eta suprasegmentalen bidez hiztunak transmititzen dituen informazioak. Hauek hiru eratakoak dira, linguistikoa, para-linguistikoa eta ez linguistikoa. Euron arteko mugak beti zehatz markatzea zaila den arren, bakoitzaren eremua irudikatzen ahaleginduko gara.

Informazio linguistikoa sinbolo diskretu eta arau multzotzat definitzen da. Berau hiztunaren gaitasun linguistikoa partetzat hartu behar da; gramatikaren osagaietako bagazkie, arau fonologikoen artean kokatzen da eta azentuarekin, tonuarekin eta intonazioarekin zerikusia dauka. Intonazioaren arauak bere baitan biltzen direnez gero, sintaxiarekin erlazionatuta dago, esaldien egitura, foko motak eta abarren berri ematen ezinbesteko elementutzat jo behar da. Gaitasun diskurtsiboarekin erlazionatzen da, izan ere, testu osoaren egitura gobernatzen du tonu eta etenen bidez (Ikusi Asuaje eta lag 2005).

Informazio paralinguistikotzat intentzioa, jarrera eta hizkera estiloak jotzen dira; eurok arteragokoen moduan hiztunaren kontrolpean daude. Informazio paralinguistikoa hauek gaitasun pragmatikoarekin guztiz lotuta agertzen dira. Intentzioen kasuan argi dago hiztunak zerbait lortu nahi duena eta helburu bat daukana, horretarako erabiltzen du hizkuntza une horretan. Jarrerei dagokionez, esan dezakegu hauek oso lotuta agertzen direla kortesiaren teoriarekin (Brown eta Levinson, 1978, 1987). Azkenik, hauekin batera estiloak zerikusia edukitzen du, jaulkitze abiadarekin, edota berbaldiari eman nahi zaion erregistroarekin.

Informazio ez-linguistikoa adina, generoa, izaera, egoera fisikoa eta emozionala moduko faktoreei dagokie; faktoreok ez daude zuzenki lotuta hizkeraren eduki linguistikoa eta paralinguistikoa eta hiztunak ez ditu kontrolatzen, nahiz imita ditzakeen.

Gaitasun pragmatikoa hiztunen eta komunikazioa gauzatzen den testuinguru sozialaren arteko erlaziotzat jotzen izan da. Gaitasun pragmatikoa, horrenbestez, hizkuntza zerbaitetarako edo funtzioaren bat betetzeko erabiltzen jakitean datza. Era berean, gauza bat esateko erarik egokiena aukeratzen jakitea ere barnean biltzen du. Esker onekoa izateko, ironikoa izateko, txantxak egiteko, kortesia adierazteko, eta abarreko funtzioak biltzen ditu.

Kortesia pragmatikaren barnean oso landua izan den eremua da Brown eta Levinsonen euren proposamena egin zutenetik (1978, 1987). Autore hauen arabera kortesia era desberdinak faktore kontestualen menpe

agertzen dira. Faktore horietariko batzuk botere erlazioak, distantzia soziala eta hiztunek egiten dituzten inposaketak dira. Esate baterako ondoko hiru esaldien arteko aldea aztertzean (barietate batzuetan behintzat) faktore hauen guztien eragina nabarmentzen da:

- (a) Etorri hona!
- (b) Etor zaitez hona!
- (c) Erdu hona!

Analisi fonologiko formalerako eredu metriko-autosegmentala darabilgun arren, Pragmalinguistikarako ibilbide horretan Phonology as Human Behavior (Enbe eta Tobin, 2008) izeneko marko teorikoa garrantzitsutzat hartzen dugu. Tobinek W. Diver hizkuntzalariaren biderei jarraituz, giza portaera fonologiaren ikerketarekin lotzen du eta hizkuntzan orokorrean eta hizkera partikularrean hizketaren barneko fonemen ausazko banaketarik ez dagoela esaten du. Horretarako, behaketa fonetikoak, artikulatioak eta akustikoak egin zituzten. Teoria honen bitartez, hitz egiteko orduan izan daitezkeen zenbait patologia ere azaltzen ditu.

Azterketa fonetikoak egiteko, funtzio linguistikoetan zein paralinguistikoetan korrelato akustiko berberak erabiltzen dira (Grawunder eta Winter, 2010). Oinarritzko maiztasuna edo F0 (mailak, ibiltartea, baranoa, mugimendua) iraupena (luzera, kantitatea) energia (zabalera, intentsitatea) ahots mota edo kalitatea (formakinak, ahoskabetzeak, aldaketak).


Lana hiru zati nagusitan banatuta aurkezten dugu. Bigarren atalean aztertuko dugun corpusaren ezaugarriak eta berori jasotzeko metodologia azalduko dira. Hirugarren atalean datuak aurkeztu eta aztertu egingo ditugu. Azkenik, laugarren atalean ondorioak eta hurrengo lanetarako iradokizunak laburbilduko ditugu.

## 2. Metodologia

Gure kortesia erlazioen gaineko analisisia egin ahal izateko “sartu mesedez” esaldia grabatu dugu erabilera egoera bitan.

Aztertzeako corpusa osatzeko 12 lekuko eduki ditugu. Lekuko guztiak اندرازkoak izan dira, 18-26 urte artekoak eta Bilboko Irakasle Eskolako ikasleak; esan dezagun bidenabar, denek burutu dituztela euren ikasketa guztiak euskaraz D ereduan. Lekuko jatorri linguistikoaren arabera talde nagusi bi egin daitezke; alde batetik A taldea dugu, hau da euskararen barietate klasikoren bat familia barruan jaso dutenak eta, bestetik, B taldea, euskara hezkuntza sisteman eurekandu dutenak txikitan. Aldi berean, eta geroagoko datuen analisisian erakusten den moduan, A taldeko lekukoaren azentu ezaugarriak kontuan hartuta beste azpi-multzo bi egin ditugu; Bizkaiko iparraldeko lekukoak doinu-azentudun barietateak erabiltzen dituztenak eta hegoaldekoak holakorik erabiltzen ez dutenak.

Hiru multzo hauen arabera sailkatuta eduki ditugun lekukoak honela banatzen dira (1. mapa):



1. irudia: Aukeratu diren lekukoaren herrien mapa.

Datuak jasotzeko lekukoari egoera bi adierazi zitzaizkien; egoera horietako bakoitzean “sartu mesedez” esateko eskatu zitzaizkien. Egoerak ondoko era honetara aurkeztu ziren:

(a) Gelara zoaz eta atean irakasle batekin egiten duzu topo, pasatzen uzten diozu berari. Esan sartzeko.

(b) Irakaslea zara eskola batean eta gelara zoazenean zure ikasleak gelatik kanpo aurkitzen dituzu. Esan sartzeko.

Egoera bi hauetan agintea (AGI) eta gonbidapenaren arteko aldea azter daitezke alde batetik, eta bestetik, botere edo estatus maila ere bai (BOT). Ezaugarri hauen arabera, egoera bakoitzaren irudikapena egin dezakegu (1. taula).

(a) egoeran gonbidapen bat egiten da eta lekukoak ez dauka botererik hiztunarekiko.

(b) egoeran agindu bat ematen da, gainera entzuleekiko hiztunak nolabaiteko boterea edo estatusa dauka.

| Egoera | AGI | BOT |
|--------|-----|-----|
| (a)    | -   | -   |
| (b)    | +   | +   |

1. taula: Aztertuko diren egoeren erlazioak.

Era honetara lekuko bakoitzeko esaldi bi jaso ziren, denetara 24 esaldi dira azterketa honetarako erabili ditugunak. Grabazio guztiak Marantz izeneko grabagailu digital batekin egin ziren kanpo mikrofonoa erabiliz. Behin grabazioak ordenagailuan edukita, azterketa egin ahal izateko “Praat” aztergailua erabili da (Boersma eta Weenink, 2009).

## 3. Datuen analisisia

Datuen analisisia egiteko, eta sarreran adierazi dugun ildo teorikoaren arabera, informazio linguistikoak eta para-linguistikoak bereiz aztertuko ditugu.

### 3.1. Informazio linguistikoak

Informazio linguistikoetan azentu ereduak eta intonazio ereduak bereizi behar ditugu. Lehen lehenik, azentuaren kokagunea jakin behar da, izan ere, silaba azentudunaren inguruan gertatzen dira tonu mugimendu nagusiak. Metodologia atalean, lekukoen ezaugarriak aipatu ditugunean adierazi dugun legez, azentu ereduaren arabera, lekukoak multzo nagusi bitan sailka ditzakegu. Alde batetik, multzo nagusi batean Durango aldeko lekukoak eta B taldekoak, hau da, euskara hezkuntzan txikitzen jaso zutenak dauzkagu. Bestetik, Busturialdekoak eta Lea-Artibaikoak dauzkagu.

Lehen multzoko lekukoen azentu ereduari dagokionez (Hualde 1997, Gaminde, 1998, 2007), esan dezakegu ezen euren sistemaren arau nagusia 2] arau orokorraren bidez adieraz daitekeela. Beronekin batera, badakigu jakin azentua ezin txerta daitekeela azken silaban, beraz estrametrikitate arau bat proposatu behar dugu. Arau hauek aplikatzeko ordenari begira, esan behar dugu ezen, lehen lehenik estrametrikitate araua aplikatzen dela eta gero azentuaren txertaketarena. Arauak ondoko hauek dauzkagu, laburbilduz:

(a) Azken silaba estrametrikoa <>

(b) Azentua txertatu 2] arauaren arabera edo libre dagoen silaban.

Gure corpuseko esaldietan dauden berbak "sartu" eta "mesedez" dira, azentu arauen aplikazioa 2. taulan erakusten da.

| Arauk    | sartu   | mesedez   |
|----------|---------|-----------|
| 1. Araua | sar<tu> | mese<dez> |
| 2. Araua | sár<tu> | mesé<dez> |
| Azkenean | sártu   | mesédez   |

2. taula: Azentu arauen aplikazioa.

Atxondo<sup>1</sup>, Zornotza, Durango eta Zaldibar lekukoek erakusten dute azentu eredu hau argi eta garbi. Bestalde B taldeko lekukoek azentu eredu bera daukate. Aurreko lan batean esaten genuen bezala (Gaminde, 2010), mendebaldeko azentu eredu hau da nagusituz doana gazteen artean; ez bakarrik euskaldun berrien eredu delako baizik eta euskaldun zahar askoren ereduarekin ere bat egiten duelako, gure oraingo kasuan Durango aldeko euskaldun zaharren ereduarekin bat dator guztiz.

Gainerako lau lekukoak berba azentudunak eta azentu bakoak bereizten dituzten azentu eremuetakoak dira, hau da, Bizkaiko Iparraldekoak. Azentu eredu hauetan gauza jakina da (Hualde, 1997, Gaminde 1998, 2007 eta Elordieta, 2008 besteak beste) berba azentu bakoaren kasuan azentua txertatzen dena arau orokor baten arabera. Arau orokor nagusia 1] da Getxo-Gernika eskualdean (Hualde, 1997 eta Gaminde, 2007) eta 2]

<sup>1</sup> Hemen herrien izenak lekukoak izendatzeko darabiltzagu.

Lea-Artibaiko herri gehienetan. Hala ere, ñabardura batzuk egin behar ditugu azken eskualde honetako herrien azentu ereduez; Lekeition arau orokorra 1] da (Hualde eta lag., 1994; Elordieta, 2008). Markinarako 3] proposatu da (Hualde, 2006) eta gainerakoan 2] (Hualde, 1997, 2005 eta Gaminde, 1998, 2010).

Gure lekukoen kasuan esaldia osatzen duten berba biak azentu bakoak direnez gero, herri bakoitzeko arau orokorren arabera azentuatzen dira. Hori gogotan hartuta, 3. taulan agertzen den azentuazioa dugu.

| Herria    | sartu | mesedez |
|-----------|-------|---------|
| Gernika   | sartú | mesedéz |
| Morga     | sartú | mesedéz |
| Munitibar | sártu | mesedéz |
| Markina   | sártu | mesédez |

3. taula: Bizkaiko iparraldeko lekukoen azentuak.

3. taulan ikusten den moduan, Markinako ereduak (arauak oso bestelakoak izanik ere) azalean bat egiten du aurreko multzoan aztertu berri dugunarekin.

Behin silaba azentuduna zein den jakinez gero, tonu mugimenduak berorren inguruan zelan gauzatzen diren azter ditzakegu. Honen arabera azpian dauden arau fonologikoak deskriba ditzakegu.


Gure azterketa metriko-autosegmental deritzon marko teorikoan kokatzen da. Egia da, Hualdek (2003) esaten duen moduan, eredu hau malgua dena eta interpretazioen arabera fenomeno berberak era batera edo bestera azter daitezkeena. Hala ere, uste dugu gaur egun eredu teorikorik indartsuena eta emankorra dela.

Eredu honek Pierrehumbert-en lanean (1980) dauka abiapuntua, geroago hainbat eta hainbat lanetan garatuz etorri da. Ereduaren ezaugarrien gaineko laburpen onak aurki daitezke lan askotan: Hualde (2003), Prieto (2006), Toledo (2007) eta Gussenhoven (2007), esate baterako. Eredua barne osagaiez eta tonuaz arduratzen den arren, gure lan honen helburuetarako tonuez baino ez ditugu ohar orokor batzuk egingo; osagaien arazoa oraingo bazter uzten dugularik.

Hiru tonu mota bereizten dira (Hualde, 2003, Toledo, 2007), azentu tonudunak, muga-tonuak eta sintagma tonuak.

Azentu tonudunak silaba azentudunetan gertatzen dira, eurok azentuaren eta tonuaren arteko erlazioa adierazten digute. Azentu tonudunen artean eskuarki mota bi agertzen dira tonu bakunak eta bikunak. Notazioari gagozkiola "\*" ikurrarekin agertzen dira, tonu bakunetan bi erabiltzen dira H\* eta L\*; honek adierazi gura du H edo L silaba azentudunarekin estekatzen direla. Bikunak H eta L tonuen arteko konbinazioak dira, notazioan H\*+L modukoak erabiltzen dira. Kasu honetan izardun tonua silaba azentudunetan hasten da eta beronen ondoan beharakada bat gertatzen dela esan gura da. Aztertu diren

hizkuntzetan proposamen desberdinak egin diren arren (Sosa, 1999, Frota, 2003, Jun, 2005), hemen Prietok (2006) proposatzen dituenak ematen ditugu adibidetzat (1. irudia).



**2. irudia:** L+H\*, H\*+L, L\*+H eta H+L\* azentu tonudunen silaba azentudunarekiko erlazioa. Prieto (2006)

Azentu tonudun bikunek printzipioz konbinazio guztiak onartzen dituzte; hala ere, orain arte egin diren lanetan oinarrituta, konbinazio posibleetarik batzuk dira 4. taulan agertzen direnak.

| Tonua | Deskripzioa  |
|-------|--|
| H*+L  | Tonu altua azentudun silaban eta baxua ondokoan    |
| H+L*  | Tonu baxua azentudun silaban eta altua aurrekoan   |
| L+H*  | Tonu altua azentudun silaban eta baxua aurrekoan   |
| L*+H  | Tonu baxua azentudun silaban eta altua ondokoan    |
| H*+H  | Tonu altua azentudun silaban eta altuagoa ondokoan |

**4. taula:** Deskribatu diren tonu bikun batzuen deskripzioa.

Osagaien mugetan agertzen diren tonuetan mota bi bereizten dira, intonazio sintagmaren mugetan dauden tonuak, aurrerantzean muga-tonuak, eta bitarteko sintagmetan agertzen direnak, aurrerantzean sintagma tonuak.

Muga-tonuak baxuak (L) eta altuak (H) izan daitezke; "%" ikurraren bidez muga adierazten da. Era honetara lau aukera daukagu, esaldiaren hasieran %L eta %H eta amaieran L% eta H%. Esaldia edo talde prosodikoaren amaieran tonu hauek azentu tonudunekin konbina daitezke.

Sintagma tonuei dagokienez, euskararen gainean egin diren azterketetan H- da proposatu dena (Jun eta Elordietari, 1997), beronen bidez lehen silabatik bigarrenera gertatzen den gorakada eta horren hedapena adierazten da. Gure aurreko beharrea (Gaminde 2007) esaten genuen legez, ipar mendebaldeko baritateetan (Hualde eta Bilbao 1992 Getxorako) eta Txorierriko herri batzuetan H- tonuaren ordez interpolazio fonetikoak egin da silaba azentuduna jo arte.


Gure datuak aztertzeko, sarreran azaldu ditugun estatus maila desberdintasunen arabera banatuta, multzo bi bereizituko ditugu; batetik, maila apalagokoa edo begirunezko erlazioa azaltzen duena (1 erlazioa); eta bestetik, aginte erlazioa adierazten duena (2. erlazioa).

1. Erlazioaren azterketa fonologikoa eginda, azentu tonudunak, muga tonuak eta sintagma tonuen banaketa egin dezakegu (5. taula).

| Tonu segida           | Lekukoak   |
|-----------------------|--|
| [(H*+L) (H*+L) L%]    | Zornotza, Durango, Atxondo, Zaldibar, Markina, Barakaldo, Bilbo, Getxo eta Basauri |
| [(H*+L) (H- H*+L) L%] | Gernika, Morga eta Munitibar   |


**5. taula:** Tonu fonologikoen segidak eta euren hedadurak.

[(H\*+L) (H\*+L) L%] tonu fonologiko segidak antzeko melodiak lortzen ditu kasu guztietan (3. irudia).




**3. irudia:** Durangoko adibidea.

[(H\*+L) (H- H\*+L) L%] tonu fonologiko segidak ez du beti melodia bera eragiten azalean, izan ere, Gernikako kasuan (4. irudia) aditzaren silaba azentuduna azkena den artean, Munitibarren lehena da (5. irudia).




**4. irudia:** Gernikako adibidea.



**5. irudia:** Munitibarko adibidea.

Azterketa bera egin dezakegu 2. erlazioari dagokionez, desberdintasun fonologiko bakarra Barakaldo eta Bilbo lekukoek erakusten dute (6. irudia).




**6. irudia:** Barakaldoko adibidea.

Gussenhovenek eta Kerkhoffek TodIrako (2001) egindako proposamenari jarraikirik, hasierako ibiltarte desberdintasuna jasotzeko %H muga tonua proposa dezakegu. Gainerako azentu tonudunek eta muga tonuek ondoko segida ematen digute:

$$[\%H (L^*+H) (L+H^*) H\%]$$

1. erlazioan erabili den tonu segidaren aldean, oraingo honek zerikusia dauka estatus desberdintasuna adieraztearekin.

Bilbo eta Barakaldo lekukoek azaleko kurba konfigurazio desberdinak erabiltzen dituzte (7. irudian melodia bien kurben aldeak ikus daitezke), hau gertatzen da sakoneko tonu fonologikoak ere desberdinak direlako.



**7. irudia:** Bilboko lekukoaren kurbaren melodia biak.

Lekuko bi hauen kasuan izan ezik, gainerakoek melodia berberak erakusten dituzte azalean eta arau fonologiko berberak sakonean. Orduan prosodiaren korrelato akustikoen desberdintasunetan ediren beharko ditugu balizko estatus desberdintasunak, horixe izango da hain zuzen ondoko azpi atalean landuko duguna.

### 3.2. Informazio para-linguistikoak

Aurreko azpi-atalean ikusi dugun moduan, lekuko gehienek azaleko melodia berberak erabiltzen dituzte aztertzen ari garen kortesia erlazio bietan, salbuespenak Barakaldo eta Bilbo izan dira. Beraz, kortesia erlazioen adierazpenean errendimendu fonologikoa hain urria izanik, informazio para-linguistikoaren aldea tasun fonetikoetan bilatzea geratzen zaigu.

Prosodiaren funtzio guztiak (linguistikoak, para-linguistikoak eta ez linguistikoak) aztertzeko beti korrelato akustiko berberak erabiltzen dira ezinbestean. Oinarritzko maiztasuna edo f0 (mailak, ibiltarte, baranoa, mugimendua), honen gaineko neurriak hertzetan ematen dira; iraupena, segundotan adierazita (luzera, kantitatea, hizkera erritmoarekin lotzen da), energia dezibeliotan adierazita (zabalera, intentsitatea) eta ahots mota edo kalitatea (formakinak, ahoskabetzeak, aldaketak, e.a.). Gure lan honen helburuetarako lehenengo hirurak aztertuko ditugu. f0ren kasuan batez bestekoa (Xf0) eta ibiltarte ikusiko ditugu, energiaren batez bestekoa (Xdb) eta esaldi osoaren iraupena.

f0ren batez bestekoari bagagozkio (6. taula), argi ikusten dugu, Zaldibarren izan ezik non alderik ez dagoela esan dezakegun, bigarren erlazioa adierazteko f0 altuagoa dela.

| Herria    | 1. erlazioa | 2. erlazioa |
|-----------|-------------|-------------|
| Atxondo   | 196,58      | 234,08      |
| Barakaldo | 194,23      | 203,38      |
| Basauri   | 168,43      | 178,98      |
| Bilbo     | 154,47      | 210,68      |
| Durango   | 219,78      | 251,49      |
| Gernika   | 193,05      | 215,95      |
| Getxo     | 196,04      | 212,67      |
| Markina   | 188,82      | 204,18      |
| Morga     | 211,45      | 239,67      |
| Munitibar | 163,94      | 206,61      |
| Zaldibar  | 213,75      | 212,86      |
| Zornotza  | 175,35      | 209,24      |

**6. taula:** f0ren batez bestekoak erlazio bakoitzeko.

f0ren ibiltarte kalkulatzeko minimoaren eta maximoaren neurketen emaitzak erabili ditugu. 7. taulan ikusten den moduan, ez dirudi f0ren ibiltarteen artean dauden alde horiek erlaziona daitezkeenik kortesia erlazioekin; haatik, pertsona bakoitzaren ezaugarri propioekin erlaziona daitezkeelakoa daukagu.

| Herria    | 1. erlazioa | 2. erlazioa |
|-----------|-------------|-------------|
| Atxondo   | 82,57       | 102,8       |
| Barakaldo | 79,11       | 38,09       |
| Basauri   | 81,35       | 99,67       |
| Bilbo     | 171,73      | 41,81       |
| Durango   | 82,99       | 102,09      |
| Gernika   | 81,78       | 69,16       |
| Getxo     | 90,95       | 98,92       |
| Markina   | 83,88       | 116,94      |
| Morga     | 100,44      | 82,86       |
| Munitibar | 134,83      | 43,15       |
| Zaldibar  | 45,05       | 43,75       |
| Zornotza  | 72,56       | 174,54      |

7. taula: f0ren ibiltarteak erlazio bakoitzeko.

Energiaren batez bestekoei dagokienez (8. taula), nahikoa erabilera desberdinak agertzen zaizkigula esan behar da. Lekuko batzuek oso alde txikiak (db bat baino txikiagoak) daukate (Barakaldo, Munitibar eta Bilbo) eta beste batzuek oso handiak (10 dbkoa) (Basauri eta Zornotza). Edozelan ere, alde handiagoak dauzkaten lekukoek 2. erlazioa adierazteko energia altuagoa darabilte.

| Herria    | 1. erlazioa | 2. erlazioa |
|-----------|-------------|-------------|
| Atxondo   | 70,11       | 74,94       |
| Barakaldo | 74,94       | 74,91       |
| Basauri   | 61,62       | 72,01       |
| Bilbo     | 71,59       | 71,79       |
| Durango   | 68,39       | 72,29       |
| Gernika   | 67,52       | 73,82       |
| Getxo     | 67,45       | 70,06       |
| Markina   | 61,02       | 66,86       |
| Morga     | 70,57       | 73,07       |
| Munitibar | 76,71       | 76,33       |
| Zaldibar  | 73,7        | 75,65       |
| Zornotza  | 61,72       | 72,45       |

8. taula: Energiaren batez bestekoak erlazio bakoitzeko.

Azkenik, esaldien arteko iraupenak aztertzen baditugu (9. taula), ikusten dugun lehenbiziko gauza zera da, hots, 2. erlazioan esaldia luzeagoa dela 1.an baino, Gernikan eta Markinan izan ezean. Xehekiago aztertu ondoren, hau da, lekuko jatorri linguistikoaren arabera, argi agertzen da ezen, B taldeko lekukoek askozaz alde handiagoak erabiltzen dituztela besteek baino. 1. eta 2. erlazioak adierazteko esaldien iraupenean agertzen diren alde batez bestekoak aztertuta, ikusten dugu Iparraldeko lekukoek alde txikiagoa erabiltzen dutela (28 milisekundoko batez bestekoa), aldea negatiboa ere izan daiteke. Gainerako talde bietako lekukoek alde positiboa darabilten arren, Durangaldeko lekukoek 60 milisekundoko batez bestekoa daukaten artean, B taldekoen 120 milisekundoko batez bestekoa daukate, hau da luzera bikoitza aurrekoen aldean.

| Herria    | 1. erlazioa | 2. erlazioa |
|-----------|-------------|-------------|
| Atxondo   | 830         | 900         |
| Barakaldo | 690         | 950         |
| Basauri   | 840         | 870         |
| Bilbo     | 780         | 900         |
| Durango   | 810         | 870         |
| Gernika   | 930         | 870         |
| Getxo     | 800         | 870         |
| Markina   | 870         | 840         |
| Morga     | 780         | 800         |
| Munitibar | 750         | 750         |
| Zaldibar  | 720         | 750         |
| Zornotza  |             |             |

9. taula: Iraupena erlazio bakoitzeko.

Ezaugarri guztien gainean egin ditugun azterketak bateratzen baditugu, ondorio interesgarri batzuk atera daitezke. 10. taulan agertzen diren datuak ulertzeko egin dugun gauza bakarra zera izan da, izari bakoitzeko agertzen diren aldeak bigarren erlazioaren aldekoak direnean "1" markatu dugu eta alderantziz denean "0". Aldeak lekuko jatorri linguistikoaren arabera sailkatuta aurkezten ditugu.

| Herria    | f0 | Energia | Iraupena |
|-----------|----|---------|----------|
| Atxondo   | 1  | 1       | 1        |
| Durango   | 1  | 1       | 1        |
| Zaldibar  | 0  | 1       | 1        |
| Zornotza  | 1  | 1       | 1        |
| Barakaldo | 1  | 0       | 1        |
| Basauri   | 1  | 1       | 1        |
| Bilbo     | 1  | 1       | 1        |
| Getxo     | 1  | 1       | 1        |
| Gernika   | 1  | 1       | 0        |
| Markina   | 1  | 1       | 0        |
| Morga     | 1  | 1       | 1        |
| Munitibar | 1  | 0       | 0        |

10. taula: Erlazioen arteko ezaugarrien gailentasuna.

10. taulan ikusten denez, oro har A1 eta B taldeko lekukoek tasun guztiak erabiltzen dituzten artean A2 taldeko lekukoek f0 eta energia dira erabiltzen dituztenak, iraupenak garrantzirik ez daukala. Baliteke berau lotuta egotea barietate hauetako ezaugarri linguistikoekin, izan ere, hauek doinu azentudun barietateak dira eta besteak ez.

#### 4. Ondorioak

Lanaren ondorioak laburbiltzeko, lehen lehenik esan behar dugu ezen, lekuko gehienek, biren kasuan izan ezik, ez dutela bereizketa fonologikorik egiten kortesia erlazioak adieraztean eta bereizteko.

Gainerako kasu guztietan (enuntziatiboetan eta galderako esaldietan) erabiltzen dituzten azentu eta intonazio arau berberak erabiltzen dituzte. Gure lekuko datuetan oinarrituta, tonu fonologiko segida bi erabiltzen dira:

(a) [ (H\*+L) (H\*+L) L% ]

(b) [ (H\*+L) (H- H\*+L) L% ]

Sakoneko tonu fonologiko segida hauek azaleko melodia berberak eragiten dituzte. Orduan azterketa fonetikoaren emaitzetan oinarrituta ondorioztatu ahal izan dugu kortesia erlazioetan agertzen diren aldeak tasun akustikoen eraginekoak direla.

Gainera, lekukoaren jatorri linguistikoen edo, gurago bada, euren azentu eta intonazio ereduaren arabera, tasun akustiko batzuk edo besteak gailentzen direla. A1 eta B taldeetako lekukoak tasun akustiko guztietan erakusten dute aldea kortesia erlazioen artean. A1, A2 taldeko lekukoaren artean iraupenak ez dauka garrantzirik eta f0 eta energia dira doitzen diren tasun akustikoak.

Gaiak hizkuntzaren lanketan eta hizkuntzaren ikaskuntza-irakaskuntzan daukan garrantzia gogotan, uste dugu aurrerantzean gai hau ikertzen segitu beharko genukeela ezaugarri pragmatikoak eta soziokulturalak kontuan hartuta. Esate baterako, konfiantza, estatusaren araberrako distantzia, boterea eta inposaketa erlazioak landu beharko lirakekeela uste dugu, izan ere, hauek dira kortesiaren teoriaren barruan parametririk nabarmenenak.

## 5. Bibliografia

- Asuaje, R. A., Blondet, M. A., Mora, E., Rojas E. (2005): Codificación Prosódica de la Información Incidental en el Discurso Espontáneo. Un estudio de caso
- Blum-Kulka (1996): "Introducción a la pragmática del lenguaje", J. Cenoz eta J. F. Valencia (ed.), La competencia pragmática: elementos lingüísticos y psicosociales, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Boersma, P., & Weenink, D. (2009). Praat: doing phonetics by computer, Software package, URL <http://www.fon.hum.uva.nl/praat/>
- Brown, P. eta Levinson, S. (1978) "Politeness", in E. Goody (Ed.) (1978) Questions and Politeness, Cambridge: C.U.P.
- Brown, P. eta Levinson, S. (1987) Politeness. Some universals in language usage, Cambridge: C.U.P.
- Elordieta, G., 2008, "Euskal azentu eta intonazioari buruzko ikerketa: status quaestionis" (agertzeko)
- Enbe, C. eta Tobin, Y., 2008, "Sociolinguistic Variation in the Prosody of Buenos Aires Spanish According to the Theory of Phonology as Human Behavior" in Colantoni, L. eta Steele, J. Selected Proceedings of the 3rd Conference on Laboratory Approaches to Spanish Phonology. Somerville, MA: Cascadilla Proceedings Project.
- Frota, S., 2003, "The phonological status of initial peaks in European Portuguese" Catalan Journal of Linguistics 2, 133-152
- Fujisaki, H. (2004) "Information, Prosody, and Modeling", Proceedings of Speech Prosody, Nara, Japonia
- Gaminde, I., 1998, Euskaldunen azentuak. Labayru, Bilbo
- Gaminde, I., 2007, Bizkaian Zehar: Euskararen Ikuspegi Orokorra. Mendebalde Kultura Alkartea eta Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo
- Gaminde, I. (2010): Bizkaiko Gazteen Prosodiaz: Euskaraz eta Gaztelaniaz. Mendebalde Kultura Alkartea. Bilbo
- Garay, U. eta Etxebarria, A. (2010): "Irakasleen komunikazio-gaitasuna: hausnarketarako gaia" Uztaro 73, UEU, Bilbo, 39-48.
- Grawunder, S. eta Winter, B. (2010) "Acoustic correlates of politeness: prosodic and voice quality measures in polite" <http://aune.lpl.univ-aix.fr/~sprogis/sp2010/papers/100316.pdf>
- Gussenhoven, C., 2007, "Intonation". in Paul de Lacy (arg.) The Cambridge Handbook of Phonology. Cambridge University Press. 253-280.
- Gussenhoven, C. eta Kerkhoff, J., 2001, "The Synthesis of Dutch Intonation on the basis of ToDI labels" Gasteizen aurkeztuko lana
- Hualde, J. I., 1997, Euskararen azentuak. Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", Gehigarriak XLII. Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo eta Donostia
- Hualde, J. I., 2003, "El modelo métrico y autosegmental" in Prieto, Pilar (coor) Teorías de la Entonación. Ariel Lingüística, Bartzelona
- Hualde, J. I., 2006, "Estado actual de las investigaciones sobre la acentuación en lengua vasca", Oihenart 21, 149-177.
- Hualde, J. I. eta Bilbao, X., 1992, "A Phonological Study of the Basque Dialect of Getxo" ASJU, XXVI-1
- Hualde, J. I. Elordieta, G. eta Elordieta, A., 1994, The Basque Dialect of Lekeitio. Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco y Diputación Foral de Gipuzkoa, Bilbo eta Donostia
- Jun, S., 2005, Prosodic Typology. The Phonology of Intonation and Phrasing. Oxford University Press: Oxford.
- Jun, S.-A. eta Elordieta, G. 1997, "Intonational Structure of Lekeitio Basque", in A. Botinis, G. Kouroupetroglou eta G. Carayiannis (arg.), Intonation: Theory, Models and Applications, Proceedings of an ESCA Workshop, ESCA, Atenas, 193-196.
- Kasper, G. (1997): Can pragmatic competence be taught? University of Hawaii: Second Language Teaching & Curriculum Center. <http://www.nflrc.hawaii.edu/NetWorks/NW06>
- Landone, E. (2009): "Reflexiones sobre la cortesia verbal en la enseñanza / aprendizaje del ELE", MarcoELE, revista de didáctica español como lengua extranjera. [http://marcoele.com/descargas/8/landone\\_cortesia.pdf](http://marcoele.com/descargas/8/landone_cortesia.pdf)



- Pierrehumbert, J., 1980, The phonetics and phonology of English intonation. Doktorego tesia, Massachusetts Institute of Technology.
- Prieto, P., (koor): 2003, Teorías de la Entonación. Ariel Lingüística, Barcelona
- Prieto, P., 2006, "El model mètric i autosegmental (AM) aplicat al català". ppt aurkezpena. <http://seneca.uab.es/pilarprieto/curriculum.html#Publications>
- Sean, Daniel (1992) "Issues in Teaching Pragmatics, Prosody, and Non-Verbal Communication" Applied Linguistics (1992) 13(3): 259-280
- Sosa, J. M. (1999) La Entonación del Español. Madrid. Càtedra.
- Tobin, Y. (2009): "Phonology as human behaviour: clinical phonetics, phonology and prosody", Poznań Studies in Contemporary Linguistics 45(2), pp. 327–352,, <http://versita.metapress.com/content/k52176023m582364/fulltext.pdf>
- Toledo, G, 2007, "Fraseo en español peninsular y modelo autosegmental y métrico" Estud. filol., sep. 2007, 42, 227-243.